



**ITZARRI enpleguko BGAEan, nomina bidez borondatezko ekarpenak** egiteko, intranetean/ enpleguaren atarian (EIZU), eskaera bat egin behar da. Horretarako, nahikoa da honako lau urrats hauek egitea:


1. **“Nire gestioak”** atalean, **“Eskaerak aurkeztea”** azpiaukera, **“Egin daitezkeen eskaerak”** atalean, **“Gizarte onurak”** aukera honen pean: **“Langilearen Itzarrira ekarpena”** sakatu.



2. Agertzen den inprimakian, ekarpenak nomina bidez egiten hasteko hilabetea automatikoki beteta agertuko da. Eta **sakatu gezi urdina eskuinerantz**, hurrengo urratsean jarraitzeko.



3. Hirugarren urratsean, ez da ezer egin behar, eskaera honek ez baitu inolako dokumentaziorik aurkeztu behar. **Sakatu gezi urdina eskuinerantz**, hurrengo urratsean jarraitzeko.



4. Laugarren urratsean, **sakatu «berretsi eskabidea» botoia**, ITZARRI Enpleguko BGAEra, borondatezko ekarpenak nomina bidez egiteko eskabidea osatzeko.

